

2008ko OTSAILAREN 13an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO BILKURAKO ERABAKIA:

ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA. BEHIN BETIKO ONESPENA

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra aurkeztu da, Udalak behin betiko onar dezan. Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuko teknikariek zuzendutako lantaldeak idatzi du dokumentua.

Espedientearen izapideetan ondoko egintzak dira azpimarratzekoak:

- * Espedienteari hasiera eman zitzaion Planeamendurako Arau Subsidiarioak berrikusteko. Izapideak egin ondoren, Udalbatzarrak Arau Subsidiarioen berrikuspenari hasierako onespena ematea erabaki zuen, 2005eko uztailaren 27an egindako bilkuran. Espedientea jendaurrean egon zen bitartean 133 alegazio-idazki jaso ziren. Berrikuspen-dokumentuaren talde egileak aztertu zituen bai alegazioak, bai jaso ziren txosten sektorialak, bai alderdi politikoen proposamenak (2006ko apirileko txostena). Horren ostean talde politikoez horiek guztiak eztabaidatu zituzten, bereziki horretarako egindako bileretan.
- * 2006ko irailean indarrean sartu zen EAEko 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera, planeamendu orokorraren berrikuspenerako espedienteei dagokienez, baldin eta legea indarrean sartzean hasierako onspena bai baina behin-behineko onspena ez bazuten, Udalak aukeratzea zeukan horien edukia eta zehaztapenak lege berrian aurreikusitakoari egokitzea, edo aurreko legeriaren eduki eta zehaztapenen arabera onartzea.
- * Udalbatzarrak, 2006ko irailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen Zarauzko Planeamendurako Arau Subsidiarioen dokumentua (2005eko uztailaren 27an hasieraz onartua) EAEko 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, ezarritakoari egokitzea. Halaber, hasieran onetsitako Planeamendurako Arau Subsidiarioen dokumentuari egindako alegazioei eta proposamenei erantzuna eman zitzaion, Udalbatzarraren akordioari erantsita joan zen testuaren arabera.
- * Akordio hori bete eta plangintza orokorraren berrikuspen-espedienteari jarraipena emateko, Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuko teknikariek zuzendutako lantaldeak hiri antolamenduaren plan orokorraren dokumentua prestatu zuen. Behin-behinekoz eraturako udal plangintzako aholku-batzordeak eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, 2007ko otsailaren 14ko osoko bilkuran, plangintzako dokumentu horri hasierako onspena eman zion.
- * Hasierako onspena eman eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuaren eta Ingurumen Ministerioko Itsasertzeko Zuzendaritza Orokorraren txosten berriak sartu ziren espedientean.

- * Dokumentua jendaurrean jarri zen. Epe barruan guztira 62 alegazio-idazki jaso ziren; eta geroago, martxoan zehar, beste 4 alegazio-idazki gehiago.
- * Plan orokorra egin zuten udal teknikariek alegazioak eta txosten sektorialak aztertu zituzten eta horiei buruzko txostenak (0359/2007 apirilaren 23koa eta 0423/2007 maiatzaren 17koa) egin zituzten. Alegazioak, udal plangintzako aholku-batzordeak eta Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko informazio-batzordeak ere eztabaidatu zituzten.
- * Udalbatzarrak, 2007ko maiatzaren 22an egindako osoko bilkuran, hasieran onetsitako Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari behin-behineko onespina eman zion, Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuko teknikariek zuzendutako lantaldeak idatzi zuen dokumentuan (2007ko maiatzekoa) jaso ziren aldaketekin. Halaber, hasierako onespeneko dokumentuari egindako alegazioak eta proposamenak onartu eta ezetsi zituen, Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko informazio-batzordearen 2007ko maiatzaren 4ko aktari erantsitako dokumentuaren testuaren arabera.
- * Behin-behineko akordioaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen gaitako organoari eskatu zitzaion ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko behin betiko txostena. Halaber, behin-behinekoz onartutako dokumentua eta administrazio-espeditentea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali zitzaion, hark 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 91.2 artikuluan aurreikusten duen txostena egin zezan.
- * Ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena Ingurumen Sailburuordetzaren 2007ko irailaren 19ko ebazpen bidez erabaki zen.
- * Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari dagokion espeditentea Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak (EHLAB) 2007ko irailaren 20ko bilkuran (5/2007) eztabaidatu zuen; eta haren txostena/erabakia aldekoa eman zen, baina baldintza jakin batzuen mende. 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, lehen xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoaren ondorioetarako, behin txostenaren baldintzak Plan Orokorrean sartu eta gero, Zarauzko Udalak behin betiko onartu ahal izango du espeditentea, eta ez du zertan berriro Batzordearen txostenaren mende egon.
- * Behin betiko onesteko dokumentua prestatu zen. Udal plangintzako aholku-batzordeak eta Hirigintza, Obra eta Proiektu, Zerbitzu eta Ingurumeneko informazio-batzordeak eztabaidatu zuten.

Espeditentea aztertu eta aurrez eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, bertaratutako 20 zinegotzien aldeko botoaz eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “*quorum*”-az

ERABAKI DU

Lehena.- Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra behin betiko onartzea. Onartutako proiektua Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuko teknikariek zuzendutako lantaldeak idatzi duen dokumentua da.

Plana osatzen duten dokumentuak hauek dira:

- * Hautatutako Antolamenduaren Informazio eta Justifikazio Memoria. 2008ko urtarrileko dokumentua da, eta gaineratu zaizkio hasierako eta behin-behineko onespeneko dokumentuen memoriak.
- * Ingurumenaren gaineko eraginaren aurretiazko txostena betetzen dela egiaztatzen duen memoria. 2007ko otsaileko dokumentua, hasiera batean onartutako ZHAPOri gaineratu zitzaiona.
- * Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana. 2005eko abuztuko dokumentua, hasiera batean onartutako ZHAPOri gaineratu zitzaion 2007ko otsaileko eranskinean jasotzen diren aldaketekin.
- * Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlana. 2007ko otsaileko dokumentua, hasiera batean onartutako ZHAPOri gaineratu zitzaiona.
- * Hirigintzako Arauak eta Planoak. 2008ko urtarrileko Testu Bategina

Bigarrena.- Akordioaren eranskin modura jasotzea plana behin betiko onartzeko hartu den erabakiari buruzko adierazpena, uztailearen 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duenak, 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- Behin betiko onespena erabaki eta gero, ondorengo izapideak egingo dira:

- Akordioa Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari jakinaraztea.
- Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.
- Behin betiko akordioaren testu osoa eta plan orokorraren hirigintzako arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitara emango da.
- Azkenik, onartutako dokumentua eta espedientea Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.”